



# NAPARROKO BIZITZA



## ERRONKARIKO USKARA

Erronkari'ko Eskuararen il-ezkilak zenbat aldiz ez dira joak! Izan ere, latzaren latza da erri baten eriotza. Neguan ostu gabeko gaztain zaharra heldu dakit gogora; elurrak autsiko ditu eta etorriko lurrera aren molkots bakarrak. Eta mundu bat, erri baten nortasun osoa joango da gizon bakoitzaren biotzean. Il-ezkilaren doñu iluna...

Ez dira oiek gaur Naparro aldeko aizeak. Il ezkil guzien ondotik Erronkari'ko eskuara ez da erabat ila. Eskualdun bat bizi den artean bizi da gure erria; eta gizon orren barneko mundua gure eskutan da. Aintzinekoen lokarriak ez dira autsiak. Nortasunaren su zaharra, hauts azpian bada ere, antxe dago bizirik. Zertako ez aizatu eta Pazko eguneko su berria sortu?

Bizian amets aundi bat behar luke gizon bakoitzak. Eta zer gauza zoragarria den amets luze baten aztaletan eskuak trabaturik senditzea;

ametsaren itzalak argiaren alderdia agertzen duen eguna...

Au guzia ekartzen dit gogora adiskide langile baten jokabideak: **Bere ametsa, Erronkari eskuarari iltzen ez uztea**. Ango gaztain zahar bakoitzaren zuloan landare gaztea ikustea. «Anitx konten» izango litzake oraikoen ordainak ikustez.

Baño, nun ginuen erakusgaia? Au izan da J. Estornés Lasa jaunak bete duen lenbiziko zuloa. «**Erronkari'ko Uskara**», liburuaren izena. Aurrendako egina da. Etzen lan errexa; erditze estua izan du, baño sortu da. Itzez itz, letraz letra, Erronkari'ko eskualdunen agotik entzunak izan dira an diren erranak.

Ez ori bakarrik; ango doñu eta itzen indarra ez da egunero ibiltzen duguna eta batzuk begi txarrez ikusiko duten teilatu-txori bat sartu du egileak; itzen azentua delako koxka. Geroak estimatuko du.

Batez ere, aberastasun aundia liburuak bigarren zatian dakarrena; ipui, erran zahar, itzulpen eta beste irakurgai jakingarriak. An emenka zabilten bilduma bakarrean. Eskualtzaleak jakin beharko dute Erronkari'ko gaietan liburu onen izena.

Laguntzale onak izan ditu egileak eta denen izenak an dirá nunbait ezarriak. Marzelino Garde dugu orai gogoan. «Principe de Viana» elkargoaren babes eta eskukaldiarekin argitaratua izan da.

Nere poza Erronkariko ama zaharrari eriotzeko orduan aurra sortzea!! Gorri samina du aurpegia, erditze gogorraren minak bezala. Ametslari

iduritu zaigu; bizi nahia. Il soinuak ezpainetan lotu  
ta sortu berriaren pozetan asi dira ezkilak. Bizi da  
«Erronkari'ko uskara». Aleluya.

**J. M. SATRUSTEGUI**